

# Prozedura Zibil berriaren 1/2000 Legea

(The new Law on Civil Procedures)

GOÑI ZABALA, Santiago

Abokatua  
Prim kalea, 14, 3.C  
20006 Donostia  
maol@euskalnet.net

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 99-101]

---

**E**

spainiar Senatuak  
baiezkoa eman zion 1999ko  
abenduan Prozedura Zibileko  
Legearen proiektuari, 1881etik  
indarrean zegoenaren lekua  
hartuz. Lege berri honen abantaila  
eta alderdi ilun nagusien berri  
ematen zaigu jarraian.

**E**

l Senado español  
aprobó en diciembre de 1999 el  
proyecto de Ley del Enjuiciamiento  
Civil, que vino a sustituir al anterior,  
en vigor desde 1881. A  
continuación se señalan  
sucintamente las principales  
novedades, así como sus aspectos  
positivos y negativos.

**Z**

e Sénat espagnol  
approuva en décembre 1999 le  
projet de Loi d'Instruction Civile,  
qui substituait l'antérieur, en  
vigueur depuis 1881. On signale  
ensuite succinctement les  
principales nouveautés, ainsi que  
leurs aspects positifs et négatifs.



Esaten da Historiak gurdi batean bidaiatzen duela, eta gurdi horren gurrpilak ez direla borobilak. Denboraldi luzean ez da ezer aldatzen eta bat-batean izugarritzko iraultza suertatzen da.

Horrelako zerbait gertatu da 2000. urteko lehenengo egunetan, Prozedura Zibileko Lege berriaren argitalpenarekin. Mendeetako tradizio bat hautsi da. Epaitegietan prozedurak ez dira berdinak izango.

Gaur arte, judizioa bereziki formaltasunez eta bermez osaturiko instituzioa izan da. Berriz diot, orain arte epaitegietako prozedurak luzeak baziren, hortik onurazko egoera bat ondorioztatzen zen. Salbuespenik gabe imagina ditzakegun garantia guztiak epaitegietan ahalbideratu behar ziren. Hau erabateko egia bezala erabili izan da mendeetan epaitegien aurrean eraman izan den prozedura bidezkoetako. Orain arte uste izan da hobe dela berandu ibiltzea, prozedura azkeneko bermea erabili gabe bukatzea baino.

Azken hamarkadetan izugarri handitu da epaitegietan aztertutako auzien kopurua. Hori ez zen mende honen erdirarte zegoen egoera. Epaitegietan, gehienetan, izaera estatikoko eskubideak eztabaidatu izan dira: ondasun higiezinaren jabetza, hauen okupazioa edo edukitza, pertsonen egoera zibila, berauen ahalmenak, oinordetzen banaketak, e.a.

Nonbait gizartearen egoera aldatu egin da, kontsumo eta merkatuko gizarreak ez baitu epaitegietan gertatzen ari den errealtatea onartzen. Beraz, Prozedura Zibileko Lege berria erronka berri bati erantzutera dator. Kontzeptualki orain arte prozeduraren justifikazio nagusia izan den diskurtso hori ukatu egiten du Lege berriak. Bere paradigma guztiz kontrakoa da.

Beti ere, epai baten helburu naturala Zuzenbidearekin bat datorren erabakia ematea da. Baina epaia oso bidezkoa izanik berandu ailegatzen baldin bada, ez da eraginkorra, eta ondorioz ez du baliorik izango.

Lege berriaren paradigma beste hau litzateke:

- Zuzenbidearekin bat datorren epaia, beti; baina garaiz eta eraginkortasunez, noski.
- Eta Lege berriak helburu hau lortzeko funtsezko bi aldaketa nagusi dakartza:

#### 1. Judizio Plenario Azkarra

Prozedura arrunt bakarria dago, epe motzak aurreikusten dira, eta izapide gutxi. Prozedura, ekintza nagusi bakar batean oinarritzen da. Dena den,

“ **Lurperatu egiten da historikoki erabili dugun judizio prozedura. Agur solemniteteak, agur luzapenak, agur zailtasunak** ”

eztabaidatzen den diru kopuruaren arabera, bi modalitate daude:

- Judizio berbala
- Judizio arrunta

Beraz, lurperatu egiten da historikoki erabili dugun judizio prozedura. Agur solemniteteak, agur luzapenak, agur zailtasunak.

#### 2. Lehen instantziako epaiak exekutagarriak dira fidantza edo kausioa eman gabe

Demanda aurkezten duenak lehen instantzian aldeko epaia lortzen baldin badu, bat-batean lor dezake kobraketa, behin-behineko exekuzioa eskatuz, eta kausiorik eman gabe.

Lege honen helburua eta ausardia garbi daude, baina gaur egun ez da ikusten bere helburua erraz lor dezakeenik, proposamen hau inguratzen duten zirkunstantziak kontuan harturik, noski.

Egun, Lege honen aldarrikapenak kritikak sortu ditu. Dударik gabe, oinarri sendoa duten kritikak. Hauek dira garrantzitsuenak:

- Nahiz eta teorikoki prozedura arrunt bakarria aurreikusten den, akzio bereziak egikaritzeko prozedura desberdin askok jarraitzen dute indarrean.
- Prozedura azkarra izango dela esaten da, baina epaileari ez zaio ahalmen berezirik ematen prozedura zuzentzeko; beti bezala, aldeek zehaztu eta bultzatuko dute prozedura.

- c) Epaitegietan eraginkortasuna lortu nahi baldin bada, hobe litzateke lehenengo eta behin epaitegietako bulegoak modernizatu eta ondo egokitzea; gero letorke prozeduren aldaketa.
- d) Epaitegietan aztertzen diren demanden ugaritasuna ez da soil-soilik baliabide berri edota lege berriekin bideratuko. Partikularren arteko auziak konpontzeko epaitegietara jotzearen aldeko kultura baretu beharko da. Kultura horren ordez, bitartekaritza, konponketa, elkarrizketa, postura kontrajarrien arteko hurbilketa lirateke gure gizartean zabaldu beharko liratekeen beste kultura baten ezaugarriak. Ez dirudi gure gizartean baliabide horiek erabiltzearen aldeko jarrera dagoenik, eta, noski, botere publikoek gaur egun ez daukate klima hau ezartzearen aldeko ideiak adierazteko legitimazio handirik.

Inork ez du ukatuko Prozedura Zibileko Legearen egokitzapena beharrezkoa denik. Denok salatu dugu sistema judizialaren eraginkortasun-eza nabarmena. Denok somatu dugu pertsona arruntengandik oso urruti dagoela justiziaren zerbitzua, baina Lege hau beharrezkoak diren beste faktore batzuk egokitu baino lehen argitaratu da; alegia, lehen aipatutakoak. Askoren iritziz, atzeratu egingo da Lege honen aplikazioa. Bere argitalpenari sorturiko kritikak aintzakotzat hartu behar dira, eta agian, Legea indarrean sartu baino lehen aldatu beharko da. Horrela ez bada, ez du bere helburu nagusia lortuko: epaitegietan gatazka zibilak azkartasun eta eraginkortasunez konpontzea.

Aurtengo urtea, Legearen ikasketarako eta kritikarako daukagu arlo honetan aritzen garen alderdi guztiok. 2001. urtetik aurrera indarrean sartuko dela dago arrekusita. Erronka oso arriskutsua da. Legeak ez dira esperimentuak; soil-soilik erabat kontrastaturik izan diren gizarte beharrak erantzuteko argitaratu behar dira, eta inolaz ez aldaketa beharri erantzuteko.